

the balde

0€



abendua | urtamila
december | january

49

ogia eta zirkua
bread and circus



49



the balde

antsosain 1

31014 iruñea

t. +34 948 12 19 76

f. +34 948 14 82 78

donostia ibilbidea. 11 behea.

20115 astigarraga

t. +34 943 44 44 22

f. +34 943 33 60 66

info@thebalde.net

publi@thebalde.net

m. +34 686 485 980

www.thebalde.net

argitaratzailea / publisher: eragin.com · komunikazioa eragin sll

editore / editor: iñigo martinez

zuzendaria / director: koldo almandoz

diseinu burua / head of design: martin etxauri

zuzendari komertziala / comercial director

& publizitatea / publicity: iñigo martinez

diseinua / design: martin etxauri, txuma vazquez, marisa mantxola, sonia beroiz, iker bereziartua, ainara gorostiaga, igor astigarraga, eneko etxeandia, angel aldarondo.

itzulpenak / translations: smiley, 11 itzulpen.

ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue: arkaitz villar, uxeta labrit, myriam gartzia, gose, cienfuegos, berta oses, angel aldarondo, nerea lurgain.

ale honetako argazkilariak / photographers this issue: the balde crew, josé tíó, juan g.andres, trapu zaharra.

komikia / comic: simonides

harpidetza orria / subscription page: the balde crew


azaleko irudia / cover image: uxeta labrit

aurkibidea / summary: uxeta labrit

inprimategia / printed at: espacegrafic

lege gordailua / legal: na-3244/01

The Baldek sortutako eduki guztiek honako lizentzia pean daude:

 Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Espainia

Aske zara: lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko ondorengo helbidean zehazten diren baldintza zehaztetan: <http://www.thebalde.net/lizentzia>



Eusko Jaurlaritzako
Kultur sailak diruz
lagundutako aldizkaria

Lan berritzaile, irudimentsu
eta ausartak egiten dituzula?

bidali ieazkiguzu:

Imaginative, provocative
and interesting works?

send them to:


info@thebalde.net



Argazkiak, 1995an, Kubako
"Gran Circo Fantasia" Uxeta Labritek
zirku ibiltariarian ateratakoak dira.

The photographs were taken at the
traveling Cuban circus, "Gran Circo
Fantasia", by Uxeta Labrit in 1995.

LABURRAK IN BRIEF



neon cementery las vegas


"There is a light that never goes out" kantatzen zuen Morrissey-k The Smiths-en zebilenean. Eta hain zuzen ere hori pentsatu zuten Las Vegas-eko eraikinetan esekitzen ziren neoi zaharrak bildu eta gorde dituzten pertsonak. Gisa guztietako hilerriak dauden herrialdean, ezin falta argiak sekula amatatzen ez diren hilerria, are gutxiago sekula lorik egiten ez duen hirian...

www.neonmuseum.org

neon cementery las vegas

"There is a light that never goes out" sang Morrissey back in the days of The Smiths. And that's exactly what those who hung themselves off the buildings in Las Vegas to take down and store all their old neon lights must have thought. In the land where you can find every type of cemetery imaginable, you couldn't but have a cemetery where the lights never go out, especially in a city that never sleeps.

www.neonmuseum.org



zaborra

Hondakinak eta birziklatzea gaur egungo artean. Izenburu hori jarri diote KM kulturgunean antolatu duten erakusketa bereziari. 9 artistak eta kolektibok hartu dute parte erakusketan. Artista horien lanek hondakin kontzeptuaren inguruan hausnartzeko adibideak eta tresnak eskaintzen dizkigute. Erakusketa ikusgarri, interesgarri eta hezitzailea.

www.kmk.gipuzkoakultura.net

waste

Waste and recycling in contemporary art. That's the name that has been given to a special exhibition being held at the KM (The Koldo Mitxelena Culture Centre). 9 artists and group are taking part in the exhibition. Their work gives us tools and example on how to reflect on the issue of the waste we generate. An interesting educational exhibition definitely worth seeing.

www.kmk.gipuzkoakultura.net

MUSEUMS AND CEMENTERIES

montehermoso

Izaskun Alvarez Gainza artistak urtarilaren amaiera arte izango du *De la Scene: A Travers* izeneko erakusketa, Gasteizko Montehermoso kulturgunean. Jarduera eta espresio bide ezberdinak erabiltzen ditu artista honek. Erakusketak gordelekuetako materialak berrerabili izan ditu, eta horiek izan dira bere obra bisualki indartsu eta poetikoaren ardatza.

www.montehermoso.net

montehermoso

The artist Izaskun Alvarez Gainza exhibits her *De la Scene: A Travers* at the Montehermoso Culture Centre in Gasteiz until the end of January. She uses different methods and ways to express her art. She sometimes reuses materials she has found stored in different exhibition centres to visually strengthen what she does and to add a poetic element to her work.

www.montehermoso.net



euskara sarean josten

Sarean euskaraz gozatzeko ez diozu etorkizunari itxaron behar.

Dagoeneko sarean euskaraz badauden ekimenak bultzatzeko eta berriak abian jartzeko jaio da AZKUE fundazioa: Wiki plaza, ahotsak.com, Xuxen bizkaieraz, Euskararen Interpretazio Zentroa, Kaixo Frankie jokoa... Sarea gehiago gozatu dezazun. Zure hizkuntzan.

Eta etorkizunari itxaron gabe.

Gurekin elkarlanean aritzeko, edo zure proiektua guri aurkezteko, gertu gaituzu:

www.azkuefundazioa.org





ZINEA, AIREA ETA ZARTAGIAK

zinegoak

The yearly Bilbo gay-lesbian-trans film festival has become more and more established with every edition and has cut out its own niche by this stage. This is the seventh edition and it is starting to prove that its uniqueness and difference sits well within the normal whole. The success of festival director Roberto Caston's film *Ander* at major international festivals is clear proof of this. From the 29th of January to the 6th of February.

www.zinegoak.com

zinegoak

Bilbon ospatuko da urtez urte hazi den eta nortasun propioa lortzen ari den gay-lesbo-trans zine jaialdia. Zazpigarren edizioa da, eta berezitasuna eta ezberdintasuna normaltasun baten barruan kokatzen hasia dela frogatzen du Zinegoakek. Jaialdiko zuzendaria den Roberto Caston-en *Ander* filmaren nazioarteko arrakasta da adibiderik garbiena. Urtarrilaren 29tik otsailaren 6ra bitartean.

www.zinegoak.com

**ZINE
goak** 2010

7^a festival de cine gay-lesbo-trans de bilbao
29 enero-6 febrero
Donostia-San Sebastián

7th Bilbao International GLT film festival
January 29th-February 6th
Donostia-San Sebastián



arma puzgarriak

Rusbal enpresa errusiarrek asmatu duen eta mundu osoan saltzen ari den armamentu berria da. Kamioi, tanke eta misil puzgarri hauek, hegazkin espiei eta sateliteei iruzur egiteko sortu dira. Armak ezkutatzeko ezinezkoa denean, armarik onena agerian uztea da...nahiz eta benetakoa ez izan.

inflatable arms

Russian company Rusbal have invented these new arms that are on sale all over the world. The inflatable trucks, tanks and missiles are supposed to trick spy planes and satellites. When it's impossible to hide arms, the most effective weapon is to leave them out in the open... even if they are not real.



gastronomista

Izen hori jarri dio emakume talde batek gastronomiari eskainitako webgune zinez interesgarri honi. Webgunearen lelo nagusia "eat like a girl" (neska baten moduan jan) da, eta bai estetikoki bai edukien aldetik probokatzailea eta zabala da webgune hau. Haien beste esaldi batekin egingo dizuegu gune hau bisitatzeko gonbita: pleased to meet you...meat to please you.

www.gastronomista.com

gastronomist

That's the name a group of women have given to a truly interesting web page about gastronomy. The web site's slogan is "eat like a girl" and the style and content of the site underline the provocative stance they have taken. We'll use another of their quotes to invite you along to get to know them: pleased to meet you...meat to please you.

www.gastronomista.com



the balde agenda 2010

agenda: **10€**

the balde aldizkariaren urtebeteko harpidetza (6 zenbaki) + agenda: **15€**

Agenda praktikoa asteka antolatuta, urteko kultur ekitaldi nagusien egutegia, egile ezberdinek sortutako irudi diseinu katea eta komentariarik behar ez duten irudiz hornituta!

Harrapatu zurea!

eskariak: info@thebalde.net. 948 12 19 76

ESKOLA ERAMAN- GARRIAK




**GOIAN EDO BEHEAN, GAUEZ EDO EGUNEZ,
ASKATU ZURE ESKOLAK.**

**BAI&BY-N MATRIKULATZEAN
ERAMANGARRI
HAU OPARI***

**BILBO. 944 70 18 57. GETXO. 944 91 50 60. ZAMUDIO. 944 31 80 47
DONOSTIA. 943 46 19 27. GASTEIZ. 945 15 71 10. IRUÑEA. 948 29 14 24**

*BALIOZKO 2 MODULO EDO GEHIAGO KONTRATATZEAN ETA IZAKINAK AGORTU ARTE

bai & by
24 ordu



kreditu tituluak

Makina bat filmen izenburu fotogramak biltzen ditu webgune interesgarri honek. Zinemaren historiak eman dituen film askoren ikur eta adierazle bihurtu dira kreditu tituluak. Adi, webgune honek adikzioa sortzen du eta.

www.annayas.com/screenshots/

title credits

This interesting website brings together a whole load of film title credits. Many of the title credits from films throughout cinema history have become symbols. Watch out, this website can become addictive.

www.annayas.com/screenshots/

DATELESS GRAPHICS



murillo gaztea

Bilboko Arte Eder Museoa Murilloren lehen lanei eskainitako erakusketa izango du ikusgai, urtarrilaren 17ra bitartean. Kostatuko zaizu lan guzti horiek berriro elkarrekin ikustea, beraz, hurbildu zaitetz erakusketa programazio finenetakoa duen gure museo honetara.

www.museobilbao.com

dodgem logic

Alan Moore komikilariaren (Watchmen, V for Vendetta, From Hell...) proiektu berria aldizkari bat da. Dodgem Logic izena du eta, esku-artearen duzionaren moduan, bi hilabetekaria da. Lehen alerako Damon Albarn-ekin tratu bat egin du. Orrialde batzuk eskaini dizkio musikariari nahi duena argitaratzeko, eta horren truke, Gorillaz taldea prestatzen ari den operan bere laguntza eskaini du.

dodgem logic

The comic writer Alan Moore's (Watchmen, V for Vendetta, From Hell,...) new project is a magazine. It's called Dodgem Logic and, like the magazine you're reading now, it's going to come out every two months. He's reached an agreement with Damon Albarn for the first number. He's offered the musician some pages to publish whatever he wants in exchange for help with the opera that his Gorillaz group is working on at the moment.



the young murillo

Murillo's early work is going to be on display until the 17th of January at the Bilbao Fine Arts Museum. It'll be a long time before you can see all this work together again, so hurry along to see this great exhibition at this museum of ours.

www.museobilbao.com



**EUSKARA.
HITZEZ HITZ,
AHOZ AHO**

Euskararen Eguna 2009. MINTZODROMOA

Abenduaren 3an, Boulevardean
Goizean 11etatik 13etara eta arratsaldean 17etatik 19etara



gaztemaniak

Gaztemaniak kontzertuek iraun duten 15 urtetan, gerora nazioarteko izar bihurtu diren musikariez gozatzeko aukera izan dugu Gipuzkoako hainbat herri eta hiritan. Nazioarteko kulturgunek, kongresu jauregiak, makrojaialdiak, kultur hiriburuak... horiek dira egunkarietako orrialdeak eta politikoen kurrikulumak betetzen dituzten kultur ekintzak. Baina Gaztemaniak aurrekontuen murrizketen lehen biktima izan da. Politikariei ezagutzen ez dutena interesatzen ez zaielako eta eguneroko kultura herrikoia interesatzen ez zaielako. Ez ditugu ahaztuko ez Gaztemaniak ez eta desagerrarazi dutenak. www.gaztemaniak.net

gaztemaniak

The Gaztemaniak concerts have been going on for 15 years in different places in Gipuzkoa International cultural meeting places, congress halls, macro festivities, cultural capitals ... Gaztemaniak has been the first victim on the list of the cultural activities and public spending that fill up newspaper pages and politicians' curricula. All because politicians aren't interested in what they don't know about and have no interest in today's popular culture. We're not going to forget Gaztemaniak or the people responsible for its demise. www.gaztemaniak.net



LEHIAKETAK, EKITALDIAK, LAPURRETAK

doka

Donostiako Kafe Antzokiak, webgunea berritzeaz gain, datozen astetarako emanaldi eta kontzertu agenda iragarri du. Musika, antzerkia, aurkezpenak, jai herrikoiak... bertatik pasa direnen irudiak eta lanak ikus ditzakezu, eta etorriko direnen berri izan.

www.doka-antzokia.com



nontzefilmak

Ireki da Nontzefilmak film-lehiaketan lanak aurkezteko epea. Gehienez, 3 minutu eta erdiko iraupeneko filmak izan behar dira. Irudi erreala edo animazioa. Otsailaren 26an, eguerdiko ordubetetan (bilboko hordua) isten da epea. Webgunean izango dira ikusgai filmak. Argibide gehiago nahi izanez gero:

www.nontzeberri.com

doka

As well as renovating its website, Donostiako Kafe Antzokiak (Donostia Café Theatre) has published its events and concerts for the following weeks. Music, theatre, presentations, popular festivities... you can see the images and work that's going to be on and find out about what's coming.



www.doka-antzokia.com



nontzefilmak

The presentation period for the Nontzefilmak film competition has opened.

The films must last no longer than three and a half minutes. Real images or animation. The presentation period finishes at midday on the 26th of February. The films can be seen on the website. If you want more instructions:


www.nontzeberri.com



Munduko ikuskizunik handiena.

The greatest show on earth.

erich von stroheim:
gorrotatzea maite duzun gizona
the man you love to hate



Lelo esanguratsu honekin iragartzen zuten Hollywood-eko estudioek Erich Von Stroheim. Ez zen erraza izango zama hori gainean eramatea, baina norbaitek horretarako ahalmena bazuen, pertsona hori Erich Oswald Hans Carl Maria von Stroheim zen. Zine zuzendari, aktore eta pertsona aparta.

Pertsona eta pertsonaia bat egin zituen gizon honen iraganak jakin-min handia piztu izan du beti. Zine zuzendari aparta izan zen eta, bere garaikideekin alderatuta, gizon aske eta konplexurik gabea, bai bizitzan bai eta zinemagintzan ere. Askatasuna larrutik ordaintzen da gehienetan eta Stroheim-ek garesti ordaindu zuen bere bizitzarekin nahi izan zuena egitea. Horregatik, guri ez zaigu interesatzen Erich von Stroheim-i moztorra kentzea. Are gehiago, Bere biografia asmatzarekin konformatu ez, eta bere asmakizuna egia bihurtzen saiatu zen gizona da interesatzen zaiguna.

Maurepas-ko gazteluan dago lurperatuta Erich von Stroheim, hilobi txiki baten azpian, baina gaztelu batean, azken finean, bere izenak merezi zuen moduan. 1955. urtean hil zen, Frantzian. Herrialde horrek eskaini zion paparrean zeramatzen dominen artean benetakoa zen bakarra, egun edozein sukaldariri edo modako kantariri ematen zaion ohorezko legioa. Bere biografiako pasarteak beti egon dira laino artean ezkutaturik. Stroheim-ek datu oso gutxi eman zituen bere familiaren eta haurtzaroaren inguruan. Bere esanetan, Erdialdeko Europako familia aristokratiko baten seme jaio zen 1885. urtean. Hainbat ikerketek diotenez, Vienan bizi ziren funtzionario baten eta gorteko dama baten semea zen. Gaztea zelarrik, ejertzitoan sartzen saiatu zen, baina bere familiak odol judutarra zuenez, ez zuten onartu. Orduan, artista izatea erabaki zuen. Garai hartan hasi zen bere bizitza osoan antzetzuko zuen papera egiten. Bere burua Prusiako ejertzitoko soldadu gisa aurkezten hasi zen. Ez zuen inongo konplexurengatik egiten. Ez, Erich von Stroheim bere bizitzaren lema eramango zuela erabaki zuen momentutik ez zuen atzera begiratu. Bere fartsarekin militarrei trufa egiten zien modu berean egiten zien trufa judutarrei bere ohitura libertinoekin. Erich von Stroheim-ek ez zuen loturarik nahi, ez genetikoak, ez kulturalak, ez eta ideologikoak ere.

1909an barku bat hartu eta AEBetara joan zen eta, han, bere bizi paperean sakondu egin zuen. Estatuatuarrak etorkin sindromeak jota bizi ziren garai hartan eta Europatik eta aristokrazia kutsuarekin iristen zen oro miresmenaz onartzen zuten. Hasera batean, behintzat, hala izan zen. Hainbat lanbidetan aritu zen, baina berehala zinearen magiak harrapatu zuen. David W. Griffith-en The Birth of the Nation eta Intolerance filmetan, aktore eta zuzendari laguntzaile gisa aritu zen. Griffith-en lan egiteko modua eta ekoizpen handietarako zaletasuna bere egin zituen gure "militar prusiarrik". Aurrerantzean, bere pelikula propioak idatzi eta zuzendu zituen, eta abilezia ikaragarria azaldu zuen ekoizpen handiak eta istorio barrokoak filmatzean. Bere zinearen bigarren ezaugarria sexua da. Bere istorioetan, agerian azaltzen da sexua. Modu aske batean fetixismoa, masokismoa, eta AEBetako zine industriak oraindik onartzen ez dituen sexu adierazpenak inongo konplexurik gabe idazten eta filmatzen zituen Erich von Stroheim-ek. Eta larrutik ordaindu zuen. Estudio handiek bizkarra eman zioten, eta bere bizitzako azken bi hamarkadetan ez zuen pelikularik filmatu. Hala ere, aktore gisa azaldu zen pelikula askotan. Arazo ekonomikoak zituenean Billy Wilder-ek behin baino gehiagotan kontratatatu zuen. Horietako elkarlan batean, zinemaren historiako pelikularik eta salaketarik finena egin zuten: Sunset Boulevard. Film honetan Erich von Stroheim-en bizitza biltzen duelako. 1928an Gloria Swanson-ek Erich von Stroheim kontratatatu zuen Queen Kelly filma idazteko eta zuzentzeko. Istorioa filmatzen hasi, eta Stroheim-ek geroz eta istorio beltz eta lizunagoa egiten ari zela konturatu zenean, kaleratu egin zuen. Erich Von Stroheim-en azken film handia izan zen. 1950. urtean Wilder-ek, aipatu dugun Sunset Boulevard filmatu zuen. Pelikula honetan, zine mutuaren desagerpenarekin bat gainbehera bizi zuen Norma Desmond zine izarraren istorioa kontatzen zaigu. Norma Desmond zine izar ahaztuaren paperean Gloria Swanson jarri zuen, eta Max izeneko haren zerbitzari isil eta koitaduren paperean, ... bai, asmatu duzue: Erich Von Stroheim.

Filmak zuzendari gisa / Films directed:
Blind Husbands (1919) / The Devil's Passkey (1920) / Foolish Wives (1922) / Merry-Go-Round (1923)
/ Greed (1924) / The Merry Widow (1925) / The Wedding March (1928) / The Honeymoon (1928) / Queen Kelly (1929) /
Waking Down Broadway aka Hello, Sister (1933)

This is the meaningful phrase the Hollywood studios used to describe Erich Von Stroheim. It can't have been easy to carry that burden, but if anyone had the strength to do so, that was Erich Oswald Hans Carl Maria von Stroheim. He was an exceptional director, actor and person.

The past of the person and personality that made up this man always aroused the greatest curiosity. He was an exceptional cinema director and ahead of his contemporaries, a free man with no complexes, both in his life and in his cinema. Freedom is often paid dear, and Stroheim paid dear for doing what he wanted to do during his life. So that's why we're not interested in removing Erich von Stroheim's mask. What's more, we're not interested in guessing his biography, what we're interested in is the man he invented and tried to become.

Erich von Stroheim was buried at Marepas Castle, in a small tomb but, at the end of the day, in a castle, as his name deserved. He died in 1955 in France. This country offered him the only real medal he won, the Legion of Honour, which today goes to any old cook or fashionable singer. Parts of his biography have always been hidden in mist. Stroheim gave very little information about his family and childhood. He said he was born into an aristocratic family in eastern Europe in 1895. According to the researches, he was born in Vienna to a civil servant and a lady at court. As a young man, he tried to join the army, but was turned down because of his Jewish blood. It was then that he decided to become an artist. It was then that he started to act the part he was to play all his life. He started to introduce himself as a Prussian soldier. And he had no worries about doing this. No, from the moment he decided what his life's slogan was going to be, he didn't look back. In the same way that he mocked the military, he mocked the Jews for their licentious behaviour. Erich von Stroheim wanted to have no genetic, cultural or ideological ties.


In 1909 he took a boat the US, where he got deeper into his role. The people of the States had an immigrant's complex at that time, and accepted this man from Europe and with his aristocratic airs with admiration. At least, it was like that at first. He did various different jobs, but was quickly captured by the magic of cinema. He both both the director of and an actor in David W. Griffith's "The Birth of the Nation" and "Intolerance". Our "Prussian soldier" learnt from Griffith's way of working and skill with large productions and, from then on, wrote and directed his own films with astonishing skill for filming large productions and complicated stories. The second characteristic of his cinema is sex. In his stories, sex is clearly present. Erich von Stroheim wrote and filmed fetishism, masochism and other sexual tendencies which have not yet been accepted by the US cinema industry. And he paid dearly for it. The big studios turned their back on him and he made no films during the last two decades of his life. However, he still appeared in many films as an actor. Billy Wilder gave him work more than once when he was in financial trouble. In one of their collaborations, they made one of the finest accusations in cinema history: "Sunset Boulevard". Because in this film Erich von Stroheim's life is shown. In 1928 Gloria Swanson employed Erich von Stroheim to write and direct "Queen Kelly". As the film went on, she realised that it was becoming increasingly dark and licentious and she sacked him. Erich Von Stroheim's last film was a great one. In 1950 Wilder filmed "Sunset Boulevard". In this film, we're told the story of Norma Desmond, a film star who lost out when silent movies disappeared. Gloria Swanson played the forgotten film star Norma Desmond, and her silent, dear servant was played by ... yes, you've guessed it: Erich Von Stroheim.



no comment



arles • argazkia/shot: uxeta labrit





Zirku bat jartzen dut
eta nanoak hazten zaizkit.

I set up a circus
and dwarves grow up.



anari izan

10 kantuz osatutako *Irla izan* disko berria aurkeztu du Anarik. 10 kantu horietan orain arte ezagutu ditugun Anari guztiak biltzen dira eta, era berean, Anari berriak deskubritzen ditugu. Soinua ezberdina da, baina Anariaren soinu bereizgarria izateari utzi gabe. Anariaren irla hau inguratzen duten soinu itsasoek, ekaitzetik barealdira azkarrago pasatzen dira, mareak biziagoak dira, olatuen indarra mudagarriagoa. Anariaren nortasun ikurrak saihestezinak dira, hala ere. Diskoaren aurkezpenean, irla honetara txoririk ez eramateko ahalegina egin duela onartu zuen, baina zuhaitzek jarraitzen dute dagokien tokia izaten, eta eskuek, eta goseak, harriek, aingurek, hegoek, denborak, arrainek, itsasoak, irratiairen doinuak, ertzak, amildegiek....

Irla izan diskoko kantuak lehendabiziko aldiz zuzenean entzuteko aukera izan genuen, politikoez lurperatu berri duten Gaztemaniak-ek antolatutako Donostiako kontzertuan. Aretoa gainezka. Musikariak eskenatokira igo eta hitzik esan gabe hasi ziren Irlaren inguruan nabigatzen. Eta haserako gitarra doinuekin iritsi zen lehen galdera:

baina, nor da Anari?

Anari talde bat da. Hainbat itsasotan nabigatu duten musikariez osatutako taldea. Barkuaren baterian Mikel, baxuan Drake, gitarran Borja, eta leman, gitarran, pianoan eta ahotsean Anari. Azken disko honetan Karlos Txap ere partaide izan dute gitarran eta ekoizpenean, bai eta Maite "Mursego"-ren txeloaren sirena doinuak ere. Anari tripulazio bat delako. Tarteka nabigatzaile berrien laguntzaz ekaitzari aurre egiten diona, tarteka lemazainaren ahotsaz ur bareagoetan barneratzen dena. Utz dezagun albo batera mariñeiei barrea besterik eragingo ez dien poesia merke hau. Anari rock taldea delako. Soinu, kantu eta ahots berezi eta bereizgarria duen talde bat. Eta honek bigarren galdera bati irekitzen dio atea.

anaririk gabe Anari?

Ez litzateke Anari izango. Anari Alberdi duela 12 urte azaldu zen disko biluzi eta liluragarri batekin, eta harez geroztik ibilbide propioa garatu du. Anarik erabaki zuen, Anari bakarlari izateari utzi eta Anari talde bihurtzea. Egun, Anari ez litzateke den taldea izango lehen aipatutako partaideak gabe. Mosketeroen moduan, bat guztientzat eta guztiak batentzat. Baina Anari Alberdi da Anariaren oinarri nagusia. Berak idazten ditu kantuak eta berak ematen die ahotsa eta irudia.

Kontzertua aurrera doan heinean, eta disko berriko kantuek aurreko lanei atea irekitzen dioten unean, jabetzen gara, beno, ez da egia, aspaldian jabetu ginelako, Anarik flamenkoek aipatzen duten "duende" hori duela. Definitzen ez dakigun hori. Kantuen artean mikrofonoan hitzik esan gabe, entzulegoa isilik eta zain duen hori. Gure buruari Anari zer den galdetzea bultzatzen digun zera hori...

www.anari.net
www.bidehuts.net

being anari

Anari has brought out her new 10-song album *Irla izan*. These ten songs bring together all the Anaris we have known up to now and show us some new Anaris, too. There's a different sound to these new songs, although they still sound typically Anari. This island of Anari's is surrounded by the sounds of the sea, storms quickly become still, the tides are strong, the strength of the waves is changeable. Even so, Anari's personality is always there. Although she admitted, during the album presentation, that she had made an effort not to take any birds to the island, there are still trees, hands, rocks, anchors, wings, time, fish, the sea, the sound of the radio, shores, precipices... in all the places there should be.

We had the chance to hear the songs from *Irla izan* live for the first time in a concert organized by Gaztemaniak (an organization which politicians have recently decided to put on the scrap heap). It was sold out. The musicians got on the stage and, without saying a word, started sailing around the Island. And our first question came up with the first sound of the guitar:

who is Anari?

Anari is a group. The group is made up of musicians who have sailed on different seas. Mikel is the ship's drummer, Drake is the bass-player, Borja plays the guitar and Anari's at the helm on guitar, the piano and voice. Karlos Txap has also taken part in this latest album on guitar and production and Maite "Mursego"'s siren-song cello is on there too. Anari is a crew. Sometimes it faces the storms with the help of the new crew-members, sometimes the helmswoman's voice takes it into peaceful waters. But's let's leave this cheap poetry to one side, it's wordy and can only make you laugh. Because Anari is a rock group. A group with a particular sound, songs and voice. And this opens the door to a second question.

an Anari without Anari?

That wouldn't be Anari. 12 years ago Anari Alberdi brought out her first, naked, amazing album and, since then, she has developed her particular career. Anari decided to stop being a solo artist and form the group Anari. Nowadays, Anari wouldn't be a group without the participants we've mentioned above. Like the Musketeers, it's all for one and one for all. But Anari Alberdi is the centrepiece of Anari, she writes the songs and gives them their voice and image.

As the concert carried on and the songs from the new album gave way to the songs from previous ones, we realised, well, in fact, we already knew that Anari has what Flamenco musicians call "duende", or magic. Something you can't define. Something that keeps people silent between song and song when nothing's been said into the microphone. Something that makes us wonder what Anari is...





**MIKEL LABOA
BERRI TXARRAK
DETROIT SOUL CITY
MASKARAK ETA ROCK&ROLLA
NORIEGA, WELCOME TO THE JUNGLE
ANARI · R&B ZURIA, LONDRES-GASTEIZ
DELOREAN · SST RECORDS · SIXTY SEXERS
AUDIENCE · THE CRAMPS · MICHAEL JACKSON
MYSPACE ETA DESLOKALIZAZIOA · EUSKAL RAP · KENZAZPI
BIZARDUNAK · THE USKI'S · INOREN ERO NI · AKAUZAZTE
EUREKA HOT IV · ERTZ, 10 URTE · GOSE · ROY LONEY & SEÑOR NO
LOAN · HARROBI · MIKEL URDANGARIN · BLOK
..... ORREAGA 778 · U.K. BILL · VICE PRESIDENTES**

+CD GOSE · DELOREAN · HARROBI · U.K. BILL · MOD TIME
..... BRAND NEW SINCLAIRS · THE USKI'S · THE SPARTEENS
..... BIZARDUNAK · HOEY & THE MUSSELS · AUDIENCE · PIZTIK
..... WILLIS DRUMMOND · MEMO · PAM · R

Entzun! disko-liburua jada salgai!

Edizio mugatua.
Egin zaitez harpide edo
egizu zure erreserba
entzun@entzun.com-en
edo 948121976
telefonora deituz





15€

ATSEDEN BILA ?
LOOKING FOR PEACE ?



www.saiazgetaria.com
E: info@saiazgetaria.com

H. Roke Deuna 25 · Getania Gipuzkoa T. 94.943.140.143



AUDIO

testua/by: arkaitz villar



Jazz & Milk Breaks Vol. 2

Askotarikoa

Jazz & Milk records

Boogaloo, afro, funk, latin edo nu jazz doinurik ez da falta Jazz & Milk diskoetxeak argitaratu duen bilduma berri honetan. Dantza modu sofistikatuaren egiteko aukera berri bat, soinu eta abesti dotoreei esker. Londres, Tokio edo New York-en parera jarri du Donostia gainera, Javi Pez-ek ere parte hartu duelako bilduman.

Boogaloo, afro, funk, latin and nu jazz sounds can all be found on this new compilation that Jazz & Milk have brought out. A new, sophisticated way of dancing has been created by these elegant sounds and songs. What's more, it's put Donostia on the same level as London, Tokyo and New York as Javi Pez has contributed to the compilation.



Basement Jaxx

Scars

XL Recordings

Felix Buxtonek eta Simon Ratcliffek osatzen duten bikoteak house oinarriak aukeratu zituen bere kantuak sortzeko. Denborarekin, ordea, garai bakoitzak eskatutako erritmoetara eta doinueta moldatzen jakin dute, eta erritmo balkanikoetatik soul, hip hop edo r&b-ra doazen abestiak sortu dituzte. Horren ondorio izan daiteke lan hau. Estilo ugariaren nahasketa da, eta, besteak beste, Yoko Ono, Eli paperboy R-eeed edo Kelisen kolaborazioen babesa du.

The duo formed by Felix Buxton and Simon Ratcliffe chose house to base their songs on. They've managed to adapt their sound and rhythms to what's been in demand at each moment in time, and they've brought out songs going from Balkan rhythms to soul, hip hop and r&b. This piece of work may be a result of this process, it's a mixture of many different styles and Yoko Ono, Eli "Paperboy" Reed and Kelis have all collaborated on the album.



Mayer Hawthorne

A strange arrangement

Stone Throw records

Ongi etorriak bihotz apurtuen klubera, edo bihotza apurtu nahi dizuen klubera. Mayer Hawthorne musikagileak hainbat talde eta bakarlarirentzat lan egin ostean, bere kantuak sortzeari ekin zion. Abesteko dohai berezia izateaz gain, ondo doakio kantuak sortzea ere. Berak jotzen ditu instrumentu guztiak, eta soulman zahar baten tankeran, maitasunari abesten dio azkenaldian egin ez den elegantzia.

Welcome to the heart-breaking club, of the club that wants to break your heart. After a lot of work with groups and as a solo artist, Mayer Hawthorne has started bringing out his own songs. As well as his singing having a special sound, he's also written appropriate songs for his singing. He plays all the instruments and, like an old soulman, sings love songs with an elegance nowadays difficult to find.



R

Uneak

Bonberenea ekintzak

Andoaindarrek hirukote moduan argitaratu dute beren laugarren estudioko diskoa. Bederatzi kantuk osatzen dute lana eta euren herriko Astikrusti estudioetan grabatu dute, taldeari fidela zaion soinuua lortuz. Rockaren alderdi biziena sortuz lortzen dute hori, "Zirrarak" bezalako abestiek erakusten duten bezala. Zaila bada ere, hamalau urteren ondoren, taldeak bere indarra mantentzeaz gain fresko izaten jarraitzen du, gure eszenako erreferentzia sendoenetakoan bilakatuz.

This threesome from Andoain have brought out their fourth studio album. There are nine songs on the album and they recorded it in the Astikrusti studio, which is in Andoain, keeping true to the group's own sound. They achieve an intense rock sound on songs such as "Zirrarak". Although it's a tall order, after fourteen years the group has kept not only its strength but also its freshness, and has become one of the most important points of reference playing live around.



Nirvana

Bleach (20th anniversary deluxe edition)

Sub Pop records

Gure nerabezaroa aldatu zuen taldearen lehen diskoak hogeitau urte bete ditu, eta hori aitzakia ona da hemen horri buruz hitz egiteko. Argi dago Nirvanak ez zuela hemen AEBtan eragin zuen zurrumbilo bera lortu, baina lagundu zigun alkandora handiak, ile luzea eta lehen bizar luzea eramaten, eta hori izan da munduaz paso egiteko eman genuen lehen pausua. Zuzeneko toma batzuekin osatuta dator, eta "Blew", "About a girl", "School" edo "Love Buzz" dagoeneko gure bizitzako soinu banda dira.

The first album by the group that changed our adolescence has reached its twentieth anniversary, and that's a good excuse to talk about it here. It's obvious that Nirvana didn't create the whirlwind they did in the US here, but they did help us to wear big shirts, have long hair and the first long beards, and that was the first step we took out into the world. They recorded it in a few live takes and "Blew", "About a Girl", "School" and "Love Buzz" are part of our lives' soundtrack.



Jimi Tenor & Tony Allen

Inspiration Information 4

Strut records

Beren munduak guztiz ezberdinak badira ere, Tony Allen eta Jimi Tenor-en ibilbidea artistikoa oso unibertsala da. Joko esperimental honetan bien esperientziak batu eta Strut diskoetxeak martxan jarritako "Inspiration information" sailean bildu dute. Berlin, Paris eta Finlandia izan dira grabazioaren geltoki. Jimi Tenorek inork baino hobeto daki musika korranteak transformatzen, eta beste aurrera pausu bat dakar Tony Allen bezalako maisu baten alboan. Lan bitxia, baina energiaz bete.

Although their worlds are very different, Tony Allen and Jimi Tenor have a highly universal artistic career. In this experimental vein they've combined their experience and Strut record company has included them in its "Inspiration Information" category. They recorded in Berlin, Paris and Finland. Jimi Tenor knows how to transform musical tendencies better than anyone, and he's taken a step forward in the company of the master Tony Allen. A special piece of work, full of energy.



gose - gosari

Goizeko 07:33ak, 898 kilometro orduko abiaduran, Japoniatik 9128 metroko altueran.

Gure lehen gosaria eguzki sortu berrian: ginda gaínean duen pastela plastikoan bilduta, melokotoia almibarretan, ogi zuria, ogiari dagokion gurin zatia eta esne-titarea "aeromozek" banatzen duten kafearentzat.

Edozein japoniarrek hartuko lukene gosariaren guztiz desberdina. Adibidez: arroz eta miso-zopa kaiku bana, arrain apurra (gehienetan gordinik), algak, soja-kimuak eta, batzuetan, esnea. Hori, sumoan aritzen ez direnek. Behar-beharrezkoa baitute gosaria: isilak, eraginkorrak, langileak dira. Txikiak eta saiatuak. Robotak direla pentsatuko zenuke, metroan lo ikusiko ez bazenitu. Japoniarra, premiazko gosaria da: elikatu eta ziztu bizian ateratzen dira, bakoitza bere beharretara, tupust egin gabe... Hitz batean, nahas-mahasa.

Gosari on batek denbora behar du, kafea, egunkaria (funtsezkoa da) eta gozoren bat sabela esna dadin. Eta jakina, leku puta horretan erretzen utzi dezatela, nola ez ba! Bestela, zertarako gosaldu...

Gauza baten eta bestearen artean, erabat esnatu eta egunaren zain gelditzen gara. Izango da, bai, bazkaltzeko tarterik.

Honetaz eta beste gauza askotaz pentsatzeko astia ematen dizu, ginda gaínean duen pastela profilaxi perfektuko egoeratik ateratzen duzun bitartean. Hegazkineko kafe kiskalia sutan da eta krema-titarea hartzen du ikaratu gabe. Ez zaigu burutik pasa ere, almibarretan datorren fruta ukitzea!

Ah, eta aurkikuntza bat: Nesquik-ak adikzioa sor dezake...

GOSE III

Disko Berria

g o s e (2009 Azaroa)





tasty breakfast

At 07:33 in the morning, at a speed of 898 kilometres per hour, 9,128 metres above Japan.

Our first breakfast in the rising sun: a cherry-topped cake wrapped in plastic, peaches in syrup, white bread, a bit of butter for the bread and the milk the air hostesses offer us for our coffee.

Completely different from what any Japanese person would have for breakfast. For instance: rice and miso soup in bowls, a bit of fish (normally raw), seaweed, soy shoots and, sometimes, milk. That's for those who don't do sumo wrestling. They really do need their breakfast because they're silent, efficient and hard-working. Small and diligent. You'd think they were robots if you didn't see them sleeping in the underground. Breakfast is essential for the Japanese: they feed and very quickly leave home, each to his or her workplace, without saying a word and in a hurry.

You need time to have a good breakfast, coffee, that essential newspaper and to have a good feeling in your stomach. And, of course, they must let us smoke in that bloody place! Otherwise, there's no point in having breakfast...

Amongst other things, we're completely awake and waiting for the day. It must be time for lunch.

We have time to think about this and many other things while we take the cherry-topped cake from its perfect prophylactic condition. The aeroplane's coffee is boiling, and we take cream in it without any doubts. We don't even dream of touching the fruit we're brought in syrup.

Ah, and a discovery: you can get addicted to Nesquik

GOSE III
New Album
g o s e (2009 November)



Notes

Michelin izarren edo aurrez prestaturiko janarien garaian bizi gara. Gure etxeko sukaldeak geroz eta gutxiago erabiltzen ditugu eta geroz eta okerrago aritzen gara sukaldaritzan. Azal lodi, argazki eder eta diseinu minimala duten sukaldaritza liburuak oso aproposak izaten dira etxeko apaletan jartzeko, gure eguneroko bazkaria mikrouhinean berotzen dugun bitartean. Bada, ordea, testura, zapore eta kontzeptu gastro-filosofikotik aldentzen den beste sukaldaritza bat, eta ez da txuletoi tripakadak aldarrikatzen duen horietako bat. Eta sukaldaritza hori, besteak beste, liburu klasiko bitan biltzen da: Parabere markesaren liburuetan.

Enciclopedia Culinaria de la Marquesa de Parabere izen ponpoxoak bi bildumaz dago osatuta: *La cocina completa* eta *Confitería y repostería*. Lehendabiziko edizioak 1933. urtean argitaratu ziren, baina 1940. urtera arte ez ziren azaldu gaur egun ezagutzen ditugun ezinbesteko bi liburu hauek, gorri eta krema koloreko azalekoak. Nagusiki errezeta liburuak dira, baina egungo liburu ponpoxoetatik urrun daude. Lehena, *La cocina completa*, liburu nagusia da. Bertan, egileak jakiez hitz egiteaz gain, sukaldeaz, tresnez, garbiketaz, historiaz eta antolakuntzaz hitz egiten du. 1500 orrialdetik gora dituen liburu honetan makina bat errezeta eskaintzen dizkigu Parabere markesak: tradizioaletatik hasita, eguneroko bazkarietarako aproposak direnak eta ospakizun berezietarako errezetak arte. Denboraren poderioz, gastronomia aldatuz joan da, teknologia eta jakiak aldatu diren moduan, baina Parabere markesaren errezetek garaikideak izaten jarraitzen dute. Zergatik? Egungo gastronomiaren kontzeptu gaindosiaren eta platerkada txikien ginetik, Parabere markesaren errezetak goxoak eta zaporetsuak direlako.

Markesaren biografia

María Manuela Eugenia Carolina Mestayer Jaquet Bilbaon jaio zen 1877. urteko abenduaren 20an. Diplomazialari eta bankari frantsesen familia bateko alaba zen. Sevilla eta Bilbao artean hazi zen eta Begoñako santutegian ezkondu zen Ramón Echagüe y Churruga abokatuarekin. Garaiko prentsak jarraipen zabala eskaini zion ezkontzari. Etxean zerbitzariak izan arren, sukaldaritza zen bere zaletasunik handiena, eta garaiko sukaldari famatuenekin izan zuen harremana. Zortzi seme alabaren ama izanik, bazuen etxean bere esperimendu gastronomikoen dastatzailerik. 1936. urtean, senarraren nahari kontra eginez, bi alaba eta seme baten konpainiaz Madrilera abiatu zen, eta jatetxe bat ireki zuen bertan. Fama handia izan zuen, baina oso laburra, Espainiar gerra zibila hasi bezain pronto itxi egin behar izan zuelako. 1941. urtean senarra hil zitzaion eta, seme guztiak alboan, jatetxe berri bat ireki zuen. Frantziatik kontrabandoa ekartzen zituen gauzekin eta arrazionamenduei izkin eginez, aurrera atera zuen. Baina gerra hura ere ez zuen irabazterik izan eta "Parabere" jatetxea itxi egin behar izan zuen. Ez zen kikitzen zen emakumea, ordea, eta urteetan ikasitakoa idazteari ekin zion. Apipargari izan ditugun bi liburuak izan ziren bere arrakastarik handiena. 1949. urtean hil zen Parabere Markesa.



parabere
markesarekin
sukaldean
in the kitchen
with the marquise
of parabere




The Marquise's biography

María Manuela Eugenia Carolina Mestayer Jaquet was born in Bilbao on the 20th of December, 1877. She was the daughter of a French banking and diplomatic family. She grew up in Sevilla and Bilbao and got married to lawyer Ramón Echagüe y Churruga at Begoña church. The press of the day gave ample coverage to the wedding. Although they had servants at home, cooking was her greatest hobby and she was in touch with the most famous cooks of the day. As the mother of eight children, she had expert gastronomic tasters at home. In 1936, and against her husband's will, she went to Madrid with two of her daughters and one of her sons and opened a restaurant. She achieved fame, but this was short-lived as she had to close the restaurant as soon as the Spanish Civil War broke out. In 1941 her husband died and she opened another restaurant along with all her sons. She made it work by making use of smuggled goods from France and by cheating on rationing. But, in the end, she couldn't win that war either, and had to close "Parabere" Restaurant. But she wasn't a lady to be put off, and started writing what she had learnt during those years. The two books we've mentioned were her greatest success. The Marquise of Parabere died in 1949.

Bilbaon
jaio zen
1877



Cy...
Coo...
Mest...
Ja...
Bilb...
jaio...
1877...
abendu...
20...
diplom...
Bilbaon...
bani...
jaio zen...
1877...
ab...
Sevilla...
Bilb...
artean...
zen...
Bego...
santuteg...
erko...
zen Ra...
Echag...
Churr...
abokat...
na...
Eg...
prens...
jarraip...
na...
erko...
Et...
nabitu...
k...
sukal...
na zen...
nabitu...
hand...
eta gara...
sukal...
famat...
kin...
na...
harre...
8...
alaba...
a...
isa...
ba...
etxe...
esperim...
gastron...
dastat...
sik...
ul...
senarr...
nabi...
kont...
alaba...
seme b...
konpa...
a moder...
abiato...
be...
jate...
reki...
To...
han...
bain...
laba...
isaan...
Espai...
serra...



Sokak tinkatu eta
karpa zerura hurbiltzen da
guztia prest dago
misterioari hasera emateko.

Heave on those ropes and
the big top heads skywards.
Everything is ready
for the mystery to start.

Raly Barrionuevo

interneteko sare (a)sozialak

internet (anti)social networks

Goi mailako kazetaritza-artikulu objektibo eta zorrotz baten bila bazabiltza, ez segi hau irakurtzen, denbora alferrik galduko duzu eta. Honakoa gehiago da datu, informazio eta hausnarketa nahaski bat. Interneteko sare sozial baten erabiltzailea bazara, irakurtzen segitu aurretik minduta ez sentitzeko eskatzen dizugu. Hau ez da ezer pertsonala, zinez.

If you're looking for objective, quality journalism and a precise article, don't continue reading, you'll be wasting your time. This is more of a mixture of data, information and reflections. If you use an Internet social network, please don't feel hurt by what you're going to read. This isn't personal, we promise.

aperitifa

1995. urtean interneteko lehen sare soziala sortu zenetik, ugaldu egin dira eta erabiltzaile kopurua zein erabilpen bolumena biderkatuz joan dira. Esate baterako, egun, bakarrik Facebookek hirurehun milioi erabiltzaile baino gehiago ditu. Eta iaz interneteko erabilpen tasa % 18 hazi bazen, sare sozialen erabilpenak % 63 egin zuen gora. Beraz, sare sozial hauen dimentsioa dagoeneko erraldoia da, eta daukaten hazkunde tasarekin egin daitezkeen igarpenak ikaragarriak dira.

aperitif

Since the first social network was opened in 1995, they have grown and the number of users and the volume of use have multiplied. To give an example, nowadays just Facebook alone has more than three hundred million users. And while the use of the Internet increased by 18% last year, the use of social networks grew by 63%. So although the size of these social network is already huge, the predictions that we can give, based on the rate of growth, are astonishing.

lehen platera

Facebooken pixka bat murgiltzea aski da konturatzeko erabiltzaile gehienek ematen dioten erabilpen nagusia beren eguneroko bizimodua kontatzea dela, multimedia baliabideen laguntzaz. Horrela, bizitza pribatua publiko egiten da. Eta milioika lagun daude egunero euren bizitzaren berri ematen. Zenbat eta gehiago kontatu, hobe. Zenbat eta kontaktu gehiagok jarraitu zure bizipenak, hobe. Kontaktuak sari modukoak dira. Berdin dio kontaktuen kalitatea, nor dagoen kontaktu bakoitzaren atzean. Balio duena kantitatea da. Kontaktuak kolekzionatzen dira lehiaketa moduko batean. Bada ere filateliaz berria izendatu duenik. Baina Facebooken, Myspacen eta halakoetan erabiltzaileek elkarri eragin baino, nor bere buruarekin bueltaka aritzen da. Komunikazio autoerreferentea da. Egotraren orgasmoa. Paradoxikoa da, banakakoa sustatzen duten sare sozialek...

first Course

If you look into Facebook just a little, you'll see that most people use it to talk about their daily life using multimedia resources. In this way, our private life becomes public. And millions of people give information about their daily lives every day. The more they tell us, the better. The more you tell us about your experiences, the better. In this way, each contact becomes like a prize. The quality of the contact doesn't matter, not does who is behind each contact. The quantity is what counts. People collect contacts as if it were a competition. Some people have called it the new philately. But on Facebook, Myspace and other networks, people spend more time thinking about themselves than they do reacting with others. It's self-referencing communication. It's the egomaniac's orgasm. It's a paradox, individualism held up by social networks ...



bigarren platera

Globalizazioak mundu osoa merkatu bakarra bilakatzeaz gain, bizimodu guztia ere merkantilizatu du. Kapitalismoa sistema azkarra da, dena zaio probetxugarri. Beraz, sare sozialek aipatu dugun dimentsio erraldoia hartu badute eta hauen eduki nagusia jende arruntaren eguneroko bizimoduaren kontakizunak baldin badira... ezetz asmatu? Sare sozialetan erabiltzaile moduan alta emateko onartu behar diren baldintzen testu amaigabeetan zera azaltzen da: erabiltzaileek argitaratzen duten eduki guztiaren lizentzia ez eskusiboa sarearen jabeari ematen zaio. Modu horretan, erabiltzaileek sareen jabeekin konpartitzen dute beren bizitzaren kontakizunak jabetza. Era berean, erabiltzaileek argitaratzen dituzten datu guztiak datu-baseak osatzeko erabiltzen dira. Ondoren, datu-base horiek baliatzen dira publizitatea erabiltzaileen profilen arabera segmentatzeko, eta, ondorioz, erabiltzaile bakoitzari teorikoki hobekien egokitzen zaion publizitatea eskaintzeko.

second Course

As well as turning the whole world into a single market, globalisation has turned the whole of life into something mercantile. Capitalism is a quick system, it makes use of everything. So if these social networks have taken on gigantic dimensions and their main contents are about ordinary people's daily lives ... I bet you can't guess. In order to sign up on a social network, you have to accept interminable conditions which include the contents published belonging non-exclusively to the network's owner. In this way, the users share the ownership of what they tell about their lives with the owners of the networks. In the same way, the data that the users publish is all used to fill up data bases. These data bases are then used to segment publicity depending on the users' profiles. In this way, at least in theory, each user is shown the most appropriate publicity.

kopa, kafea eta havanoa

